

## BIZIKASI EKIMENA

**Ziberbiktimizazioari buruzko galdera-sorta.** Nocentini et al. oinarri hartuta (2010)  
David Álvarez-García, Alejandra Dobarro y José Carlos Núñez (2014)

Adierazi zer maiztasunarekin izan zaren egoera hauetakoren baten biktima azken 3 hilabeteotan. 1= Inoiz ez; 2= Gutxitan; 3= Askotan; 4= Beti

EGOERAK	1	2	3	4
1. Interneten nire nortasuna erabili dute ni izango banintz bezala iruzkinak argitaratzeko				
2. Nire elkarrizketa pribatuak kopiatu dituzte eta beste batzuei bidali dizkiete niri kalte egiteko				
3. Norbaitek ez nau onartu onlineko joko-taldean, edo bota egin nau, hori justifikatzen duen ezer txarrik egin gabe				
4. Nire argazkiak trukaturata (desitxuratuta) argitaratu dituzte Interneten, niri kalte egiteko edo nitaz barre egiteko				
5. Norbaitek beste pertsona baten nortasuna erabili du, Internetez edo telefono mugikorrez nitaz barre egiteko				
6. Txat, sare sozial edo Watsappeko talde baten kontaktu-zerrendatik bota naute, edo ez naute onartu, nik ezer egin gabe, ni izateagatik bakarrik				
7. Argazki edo bideo «gogorrak», niretzat desatseginak, bidali dizkirate				
8. Gero erantzuten ez duten deiak jaso ditut mugikorrean, molestatzeko, segur aski				
9. Nire benetako argazki edo bideo desagokiak zintzilikatu dituzte, nire baimenik gabe, kalte egiteko edo nitaz barre egiteko				
10. Sekretuan, inori ez kontatzeko, eman nituen informazioak argitaratu dira Interneten, kalte egiten didaten arren				
11. Niri irain egiteko edo nitaz barre egiteko deiak jaso ditut				
12. Posta elektronikoa, sare sozialeko edo bat-bateko mezularitzako programa (Watsappeko) baterako sarbidea blokeatu didate, pasahitza aldatuz.				
13. Nitaz barre egin dute, sare sozialetan iruzkin iraingarriak eginez.				
14. Jo egin naute, egindakoa grabatu dute, eta, gero zabaldu egin dute				
15. Irainak jaso ditut testu-mezu laburren (sms) edo bat-bateko mezularitzako (adib. Whatsapp) programen bidez				
16. Nire nortasuna erabili dute Twitter-ren, eta erabiltzaile-profil faltsu bat sortu dute (argazkia, datu pertsonalak), iraintzeko edo barregarri uzteko.				
17. Mezu anonimoak jaso ditut (sms, Whatsapp...) ni mehatxatzeko edo beldurtzeko				
18. Niri buruzko kexa faltsuak egin dira foro, sare-sozial edo onlineko jokoren batean eta handik botatzea lortu dute				
19. Nik bidalitako posta edo mezu pribatuak birbidali dizkiete beste batzuei, niri kalte egiteko				
20. Zerbait umiliagarria egitera behartu naute, egindakoa grabatu,				

## BIZIKASI EKIMENA

eta, gero, zabaldu egin dute nitaz barre egiteko				
21. Publikoki mehatxatu naute, sare sozialen bidez (Twitter, Facebook...)				
22. Ados jartzen dira ni sare sozialetan alde batera uzteko (baztertzeko)				
23. Dei anonimoak jaso ditut mehatxatzeko edo beldurtzeko				
24. Nahi ez nituen sexu-iruzkinak jaso ditut Internetez				
25. Norbaitek nire pasahitza lortu du eta ezagunen bati mezu gogaikarriak bidali dizkio ni izan banintz bezala, niri arazoak sortzeko				
26. Gezurrezko zurrumurruak argitaratu dira niri buruz sare sozialen batean				